

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jakinarazpena egitea, interesduna non bizi den ezin jakinez: honen bidez, interesdunari jakinarazten zaio ezen udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko 16011P-44/2016 espedientea abiarazi dela berari buruz, bidegabeki erroldatuta egoteagatik

Administrazio egintza jakinaraztea Blanca Ortiz Cruz andreari.

Erabaki hau ezin izan zaio jakinarazi interesdunari, ezin jakinik non bizi den. Beraz, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), iragarki hau BOEn argitaratuta —eta aldez aurretik, aukerakoa delarik, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan—, alkatetzaren 16/232P zenbakiko ebazpenaren jakinarazpena egiten zaio. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko abuztuaren 17an, ebazpena eman zen (16/232P Dekretua). Haren edukia, zuri dagokizunez, hau da:

Udal honek jakin du, A. R. L. jaunak/andreak 2016ko uztailaren 5ean aurkeztutako idazkiaren bidez, zeina Foru kaleko 2. zenbakiko 2. solairuko B atean dagoen etxebizitzaren errentamendu kontratuaren titular gisa aurkeztu baitzuen, ezen Blanca Ortiz Cruz bidegabeki dagoela erroldatuta udalaren biztanle erroldan, ez baita egiaz bizitoki horretan, eta hartara urratu egiten baitira Biztanleriaren eta lurralde mugapeei buruzko Erregelamenduen 54. eta 68. artikuluetan ezarritako baldintzak (1690/1986 Errege Dekretu uztailaren 11koaren bidez onartu zen erregelamendu hori, eta 2612/1996 Errege Dekretu abenduaren 20koaren bidez aldatu zen).

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi adierazitako helbide horretan.

Bat etorri erregelamendu horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutuko lehendakariak eta Eskumenak autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak biek batera 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatzearen gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta bat etorri orobat gainerako legedia aplikazio bidezko eta orokorrekoarekin, alkate honek, aitortzen zaizkion ahalmenak erabiliz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta espedientea abiaraztea ofizioz, pertsona hauek Amurrioko udalaren biztanle erroldan ustez bidegabeki erroldatuta daudela adierazteko:

IZENA ETA DEITURAK:	AGIRIA
D ^a Blanca Ortiz Cruz	58.027.374-F

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki deritzen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeke, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du, Amurrión, 2016ko abuztuaren 27an. Halabeharrezko idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.

Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrión, 2016ko abuztuaren 24a

Alkate-lehendakaria

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA